

# Atxubieta

## UDAL BERRIAK

Uztaila  
2010  
Zk. 108




Ekainaren 28tik Uztailaren 9ra arte

### Lemoako Udalak antolatuta, UDALEKU IREKIAK Izena eman duten hurrek 10:00etan ludotekan egon behar dute

#### PLANGINTZA:

- **Ekainak 28** (10:00-14:00): harrera eta aurkezpen jolasak
- **Ekainak 29** (10:00-15:00): Gamarra-ko igerilekuetara irteera
- **Ekainak 30** (10:00-14:00): jolasak eta eskulanak
- **Uztailak 1** (10:00-14:00): "Herria ezagutu"
- **Uztailak 2** (10:00-14:00): "Frutekin jolasean"
- **Uztailak 5** (10:00-14:00): Lemoako igerilekuetara irteera
- **Uztailak 6** (10:00-14:00): "Arte eguna"
- **Uztailak 7** (10:00-14:00): puzgarriak Bilbon
- **Uztailak 8** (10:00-14:00): "Urenen eguna"
- **Uztailak 9** (10:00-19:00): Sukarrietako hondartzara irteera / Euskadiko Biodibertsitate Zentroa bisitatuko dugu



Uztailaren 12tik 23ra arte


### Eguraldi ona bada, LUDOTEKA ETA LIBURUTEGIA IGERILEKUETAN GAUZATUKO DIRA

- Ordutegia: 11:00etatik – 14:00etara / 11:00etan ludotekan\*
- Karneta duenak eraman dezala
- Igerilekuetan gauden egunetan, 14:00etan eskolan hartu beharko dituzue zuen seme-alabak
- \*Udalak ez du bere gain hartuko 11:00etan ludotekan ez dauden umeen ardura (zerrenda bat egingo da egunerok).

Uztailaren 26tik Abuztuaren  
21era arte

### ARLANPEKO AZTARNATEGIAREN INDUSKETAK

- Kobazuloan bertan burutzen ari diren lanak, zein "antzinako medikuaren etxean" egokitu den laborategia bisitatzeko aukera dago
- Informazio gehiago "antzinako medikuaren etxean"





**GAZTE PLANA** Uztailaren 12tik 17ra arte

## ARRATIA UDA GAZTEA PIRINEOTAN

Arratiako Gazte Informazio Bulegoak antolatuta

# Lemoako Jaiak 2010

> **Jai Batzordeak antolatuta, LEMOAKOEN ARTEKO PADDEL TXAPELKETA.** Izena emateko epea zabalik!

- Lemoako kiroldegian, uztailaren 9ra arte
- Finala irailaren 11n

> **KUADRILEN AFARIA KIROLDEGIAN:** uztailaren 30ean, 21:00etan

- Afaria 18 urtetik beherakoentzat izango da
- Afarira joan ahal izateko, **txartelak uztailaren 23a baino lehen hartu beharko dira Udaletxean euro 2ren truke.** Ticketaren zenbakia zenbait opariren zozketarako erabiliko da afariaren amaieran.
- Menua: pintxoak

> **HERRI BAZKARIA ESKOLETAN:** abuztuaren 1ean

- Bazkarira joan ahal izateko, **txartelak uztailaren 23a baino lehen hartu beharko dira Udaletxean.**
- Jai Batzordeak bazkarirako mahaia, mahaitresnak, ogia eta ura jarriko ditu. Edariak norberaren kontura.

> **San Inazio egunean "ZAZTAPARRAK" TALDEAK ANTOLATUKO DITUEN KALE JOLASETAN PARTE HARTZEKO:**

- Izena eman: uztailaren 26tik 29ra arte Iudotekan (11:00– 14:00)
- 4-14 urte bitartekoentzat

> **SAN INAZIO JAIK LEMOAN:** uztailaren 28tik abuztuaren 1era

- Kultur ekintzei buruzko informazioa programan eta web orrialdean kontsultatu

## OHARRAK

- **LIBURUTEGIKO UZTAILEKO ORDUTEGIA:** 11:00etatik 14:00etara.
- **KZ Guneko tutorea** Lemoan:
  - Uztailak 7, eguaztena: 09:00etatik 13:00etara
  - Uztailak 21, eguaztena: 09:00etatik 13:00etara
- **Arratiako Gazte Informazio Bulegoak** hilabete osoan SEXU AHOLKULARITZA (sexueninguru.gibarratia@gmail.com) emango du. Informazio gehiago: Gazte Informazio Bulegoan 16:00etatik 20:00etara edo 639017839 / 639018133 telefono zenbakietan.
- **Ganzabal Mendi Taldeak** antolatutako ekintzen inguruko informazioa: Lemoako eskoletan - Jubilatuen Etxeko 1. solairuan eguaztenetan 20:00etatik 22:00etara edo 675701359 / 946314597 telefono zenbakietan.

\*\*\*JAIETAN AUTOBUSA ERABILI. Abuztuan Arratiako Gazte Informazio Bulegoak Lemoara bueltatzeko autobusak antolatzen ditu goizaldeko 02:30ean eta 04:30ean; Zeanuritik abuztuaren 13an eta Areatzatik abuztuaren 27an.